## 07. Deba-bailara

1. Sarrera. Deba-bailara, Debagoiena eta Debabarrena. Lehena kontzeptu geografikoa da, eta hiru lurraldeko urak jasotzen ditu (Araba – Aramaio-, Bizkaia –Ermua eta Mallabia- eta, batez ere, Gipuzkoakoak); beste biak, aldiz, Gipuzkoako eskualdeak dira. Deba ibaiak 58 kilometro ditu (Euskal Herriko bostgarrena, luzerari dagokionez) eta, industrialde ugarien eraginez nahiko kutsatuta egon ohi da. 2 urtegi daude, Urkulu Aretxabaletan (1975-1979an egina; Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Oñati eta Antzuola hornitzen ditu uraz) eta Aixola Eibarren (Eibar eta inguruak hornitzen ditu). Bailaratik pasatzen zen XVIII. mendeko Erret Bide bat (gutxi gorabehera gaurko GI-627 errepidea). Eibar-Gasteiz autobidea bailaran ezartzen ari dira (Maltzagako elkargunea, T. Monzonen hitz metaforikoetan ere), AHTa bertatik pasako da, baita etorkizuneko Deba bailarako tranbia ere. Biztanlegoa (INE, 2007): Eibar (27.404) + Arrasate (22.116) + Bergara (14.823) + Elgoibar (10.893) + Oñati (10.756) + Aretxabaleta (6.559) + Deba (5.367) + Soraluze (4.062) + Eskoriatza (3.958) + Antzuola (2.121) + Mendaro (1.720) + Elgeta (1.051) + Leintz-Gatzaga (250) ≈ 120.000 biztanle inguru.
2. Debagoiena edo Deba Garaia: Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta, Oñati, Arrasate, Antzuola eta Bergara. Gasteiz eta Gipuzkoako mendebaldearen arteko pasarte naturalean dago, Erret Bideak eta budinbideak bulkada ekonomikoa eman ziotela.
    - Leintz-Gatzaga: Gatza ekoizten egin zen ezagun. Gainontzeko herriak baino gutxiago garatu zen ekonomikoki, erliebe maldatsuagatik, eta tren-geltokia urrun samar izateagatik. Erret Bidearen ate monumental bat du.
    - Eskoriatza: Bailararen hasiera pixkat zabaltzen denean agertzen da. San Pedro parroki-eliza. Inguruan elizate batzuk ditu (Apotzaga, Bolibar, Mendiola…). Udaletxea. Ibarraundi jauregia.
    - Aretxabaleta: Udaletxea eta Adre Asun edo Jasokundearen elizaren arteko multzo ederra. Otalora dorretxea (eliza ondoan). Udaletxea (estilo ingeles bitxikoa). Galartzako dorretxea. Otala jauregia (Aozaratza auzoan, Urkulurako bidean).
    - Arrasate edo Mondragoe: 1260an sortu zuen hiribildua Gaztelako erregak, hiru kale nagusiekin, Erdiko kaleak bat egiten zuela Erret Bidearekin (gaur egun hiru atek zutik diraute). San Joan Bataiatzailearen parrokia. Inguruetako mehategitik zetorren burdina ekoizten egin zen ezagun. Hori dela eta, burdinolak, sarraila- eta arma-lantegiak izan zituen. 1906an "Unión Cerrajera" enpresa sortu zen, baita ELMA lantegia ere (honek etxeko gauzak egiten zituen, 1925ean 278 langile zituela). Trena desagertuta dago gaur egun. Udalatx mendia. Monterron jauregi barrokoa (XVII. mendekoa; bertan izan ziren Felipe V.a, Isabel II.a edo Maria Kristina). Euskal Kooperatibismoaren sorlekua: Euskadiko Kutxa, Eroski, Fagor, Mondragon Unibertsitatea.
    - Oñati: Gipuzkoan 1845ean sartzen da ofizialki (lehenago Oñatiko Konderria zen). San Migel eliza eta kalostra (Ubao ibaiaren gainean). Foruen plaza erregularra eta portikoduna. Udaletxe barrokoa. Oñatiko "Sancti Spiritus" Unibertsitate pizkundetarra (gaur egun jada ez da klaserik ematen). Zumeltzegi dorretxea (Oñatiko kondearena, XIV. mendekoa). Lazarraga dorrea. Arantzazuko Santutegia.
    - Bergara: 1268an sortu zuen hiribildua Gaztelako erregeak. Artekalek Erret Bidearekin bat egiten zuen. Industrializazioa baino lehenago bailarako herririk garrantzitsuena zen. Inguruko erliebe maldatsua dela eta, lurzoru gabezi handia du. Deba ibaiaren meandroaren eremu ahurra parke gisa hornitu da. San Pedro parrokia. Egino-Mallea jauregi pizkundetarra (alde zaharra eta Masterrekako errebalaren artean). Jauregi etxea (seminarioaren alboan). XVIII. mendean ezaguna egin zen Europa guztian zehar bertan sortutako Errege Seminarioan lehen aldiz wolframio metala Elhuyar anaiek isolatu zutelako (1764an Bergaran sortu zuten Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea). Agarreko garaia (XVI. mendekoa). Lehen Gerra Karlistako 1839ko besarkada ezaguna Espartero liberala eta Maroto karlistaren artean bertan izan zen, Ozaeta dorrearen alboan, hegoaldean (euskal foruen amaieraren hasiera).
3. Debabarrena: Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Deba. Burdinarekin erlazionatutako ekonomian oinarritu zen, Soraluzeko arma-lantegiaren inguruko lantegi ugari izanik.
    - Eibar: Ego ibaiaren bailara estuan dago, Ermua bezala, Gipuzkoaren mendebaldea eta Bizkaiko Durangaldea lotzen dituen pasarte naturalean (horregatik autobide eta errepidez josita dago). Lurzoru gabezia dela eta linealki hazi da, baita altueran ere, askotan etxebizitza-eremuak eta industrialdeak nahasiz, eta ibaia ia erabat estaliz. Gehiago ezin denez hazi, haren demografia atzerakadan dago azken urteotan. Ia ez du hirigune historiko edo alde zaharrik, besteak beste, Espainiako Gerra Zibilean, 1937an, birrindu zutelako bonbardeaketa batean. Bertan jaio zen Ignazio Zuloaga margolaria. Armagintza-eskola, Lambrettaren lantegia (motorrak), Alfaren lantegia (josteko makinak eta abar). Arrate Amaren santutegia. San Andres eliza, Untzueta dorretxea, Markeskua edo Isasitarren jauregia, Aldatseko jauregia, Udaletxea (Ramon Kortazarrena).
    - Elgoibar: Makina-Erremintan eta armagintzan oinarritzen den herri industriala da, batez ere. Frontoia herriko plaza pizkundetarra ixteko elementutzat erabiltzen da. Olasoko San Bartolome eliza, herriko hilerrian. Karakate eta Hirukurutzeta (900m inguru) mendiak parean ditu, haietan trikuharri eta tumulo anitz daudela.
    - Deba: Ekaingo leizea, labar arteari dagokionez munduko bost garrantzitsuenen artean (zaldien horma da aipagarriena). Flyscha. Santa Maria eliza. Valmar edo Agirre jauregia.